

ZARATA NEURTZEKO ESTUDIOA HERNANIN

Auzo batzuetan zarata kontaminantea izateko neurrikoa da, estudio batek dioenez

■ Industrialdeetako inguruak dira gehiena nozitzen dutenak, batez ere, Zikuñaga, Osiñaga eta Florida ■ Teknikoen ustez posible da ezer gutxirekin arazoa asko arintzea ■ Estudioa Hirigintza Batzordean aurkeztu zen.

UDALAK aginduta, Hernanin zarata neurtzeko estudioa egin da eta osteguneko Hirigintza Batzordean aurkeztu zen. Zarata neurketak 3 zonatan egin dira: industrialde inguruetan, kaxkoan eta trenbide inguruan. Eta konklusioa garbia da: bai industrialde inguruetan eta bai trenbide inguruetan zarata neurriak legeak uzten duenetik oso gora daude. Legeak 30 dezibeliorainoko soinua onartzen du gauean etxe barruan. Gauean 55 dezibeliotik gorako tokiak berriz, zona kontaminatuak kontsideratzen dira. Hernanin bai herri barruan eta bai industrialde inguru gehienetan 55 dezibeliotik gora eman du. Zenbait tokitan 78 dezibelioko soinua neurtu dira etxe kanpoan eta barruan 50etik gorakoak izan zitezkeen. Soinu hori gehiena sufritzen dutenak industrialde inguruetan bizi direnak dira, estudioak dionez eta trenbide inguruan bizi direnak ohitu egin dira soinu horretara eta ez dira kejetzen.

Egun osoko neurketak
Zarata neurketak Laecor SL enpresak egin ditu eta estudioa egiteko egunean 24



Florida inguruak egunez zona kontaminatu kontsideratzeko zarata neurriak eman ditu.

orduko neurketak egin ditu zenbait lekuetan. Estudioa egin dutenak aitortu dute zenbait lekutan izututa gelditu direla dagoen soinuarekin. Estudioaren aurkezpenaren Zikuñaga eta Osiñagako bizilagunak ere han ziren, eta beren esanetan, azken 3 urtetan Zikuñagako Papeleraren soinua izugarri haunditu da. Floridan ere 54 dezibelio neurtu dira AMR inguruan.

Konponbide nahiko erraza
Soinu azterketa egin dutenek adierazi dutenez, soinua molto ez izateraino kentzea ez da hain zaila, eta garestia

ere ez. Planteatzen duten konponbide bat da, soinu haundiak ateratzen dituzten motor edo makinei protekzio bat jartzea bueltan, eta horrek asko baretzen omen du gauza. Trenbide ondoko inguruetarako ere konponbideak planteatu ziren, baina, jendeak kejarik ez duenez, momentuz bere horretan uztea proposatzen dute.

Ordenantza beharra
Gaur egunean badago zarata-ri buruzko legegizakia, baina, teknikoek berak aitortu dute oso zaharra gelditu dela. Bai Frailek eta bai Morcillok

planteatu zuten zarataren kontua erregulatuko duen Ordenantza egitea dela aurrera begirako bidea. Ordenantzak lokaletako soinuaren kontua ere arautuko luke. Laecor SL-ko teknikoek iritziz ere, Ordenantza ezinbestekoa da eta hori martxan jarri duten herrietan arazoa asko jeitsi da gainera. Donostia edo Astigarraga jarri zituzten adibide bezala.

Ordenantza hori egin birtartean, Manuel Frailek adierazi zuen Udala hasi egingo dela enpresetara joan eta arazoi konponbideak bilatzen eta planteatzen. □



Laecor SL-ko teknikoak eta Manuel Fraile, Hirigintza Batordean.



Auzotarrak, Morcillo eta Hirigintzako idazkaria.

■ FUTBOLA

Hernani Erretereriara dijoa gaur 2garren garaipenaren bila

HERNANIKO taldea puntu bila joango da gaur Touring-en kontrako partidura, sailkapenean goiko postuetatik ez asko urrutiratzeko. Erretereriarak ez dabilta oso fin aurten, eta Hernanik aprobetxatu beharra dauka hori. Gaur 17:00etan da partidua, Erretereriako Fanderia Zelaian. □

■ WATERPOLOA

Hernanik Iruñako Larraina taldea hartuko du gaur Kiroldegian

HERNANIK bi partidu jokatuko ditu gaur kiroldegian. Lehenengo Euskadiko ligakoa Larrainaren kontra, 12:00etan; eta bigarrena Gipuzkoako ligakoa, Eibarko Easoren kontra, 13:00etan. □

OIALUME DANTZALEKUA

DJ Talo eta Laiotz gaur Oialumen

FESTA eguna izaki, gaur eta bihar izango da dantzaldia Oialumen. Gaur 19:30etatik goizalderarte Talo disko jartzailea eta Laiotz taldea ariko dira, eta bihar 19:30etatik aurrera Akelarre taldeak joko du. □

BAZKARIA OSIÑAGAN

Arriatsun ikasi zutenen bazkaria gaur

ARRIATSU eskolan ikasi zutenek bazkaria dute gaur. Bazkari hau urtero egiten dute urriaren 12arekin. □

Telemar
ITXASTELE S.L. Telyco denda
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00

CD eskeintza berezia:
10 CD + 1: 6 eurotan.

EMTEC
CD-R HIGH PERFORMANCE
80 min
52X CERTIFIED

WEB ASSISTANCE

MoviStar Activa
Mobiletan eskainitza:
Kontratua hileroko
kuotarik gabe.
MOVISTAR PLUS

ALCATEL
NOKIA
CONNECTING PEOPLE

ALCATEL 311:
62,00 euro alta

NOKIA 3410:
106 euro

AMEGAR
etxe tresnak
altzariak

amegar.net
etxe tresnak

Bisita ezazu gure web orria
eta ikusi gure eskeintza.
www.amegar.net

Txirrita kalea 15 - HERNANI
Tel 943 551125 - Faxe 943 551603

Ford

Antziola-Motor
ZERBITZU OFIZIALA

Ford Fiesta
berriarekin
festatik festara.
Etorri eta ikusi

ANTZIOLA AUZOA 12 - Hernani - Tfnoa. 943 55 57 72
Ordutegia: Asteazkera 9-13 eta 16-20 - Larunbetean 10-13

■ ERRUGBIA -ESTATUKO LEHEN MAILA



Hernaniko taldea Landaren, Getxoren kontrako partidu amistosoan jokatu zutenean.

Hernanik joko maila onean hasiko du liga gaur, Caja Cantabria talde gogorraren kontra

■ Lehengo denboralditik 3 jokalarik utzi dute taldea, baina, 6 jubenil igo dira eta ia baina talde gogorragoa eduki lezake Hernanik ■ Partidua gaur, 12:30etan Landaren.

“PARTIDU hasieran gogor defenditu eta erritmoa jar-tzea” izango da Hernaniarren estrategia gaurko partiduan, Joxe Elozegi entrenatzaileak Kronikari adierazi dionez. Iaz gora egin zuen taldeak eta aurten ere joku maila ona erakutsi dute hernaniarrek denboraldi aurrean. Gaurko, partidu gogorra iragarri du Elosegik, baina, irabaziko dutelakoan dago.

Argentinari eta britaniarrek Caja Cantabriak talde ona du, argentinari eta britaniarrek indartua. Atzekalde oso sendoa dute eta kolpe guztiak

sartzen dituen tiratzaile argentinarra. Zigor kolpeak ez probokatzen saiatu beharko dute hernaniarrek beraz, eta atzekaldean kontuz ibili beharko dute bi aurrelari britaniarrek, altuak eta kalitate handikoak baitira.

Iazko bidetik lanean

Iaz denboraldi ona osatu zuten nagusiek. Liga nahikoa panggal hasi zuten, baina, bukaerarako ondo jokatu eta partiduak irabaztera jarri ziren. Albin Lhoste eta Joxe Elozegi dituzte entrenatzaileak eta aurten pre-paratzaile fisikoa ere hartu dute: *Tximist*. Nagusietan 50

fitxatik gora dituzte; kadetetan ere punta puntako ekipoa; eta jubeniletan, gazte asko goiko mailara igo direnez, Zarautzekin jokatu dute Euskadiko liga. Nagusien bigarren taldeak Euskadiko liga jokatu du eta gaur partidua dute Abanton 16:00etan.

Etxeberrikoei omenaldia

Partidu hasieran Etxeberriko bizilagunei plaka bat emango die Errugbi Elkarteak, auzoak izan duen errugbi zaletasuna eskertzeko, eta partidu bukaeran auzoko jokalarik ohiak hamaiketakora gonbidatuta daude. □

MUSIKA ASTEA

Kalejira trikitixa eta tinbalekin, DJak Apeadero tabernan eta Kontzertua Tilosetan, gaur

■ Gaur 22:00etan da kontzertua ■ Biharko kontzertua 18:00etan.

MUSIKA astearen barruan hiru ekitaldi dira gaur Hernanin. Arratsaldeko 18:00etan kalejira egingo dute trikitixa eta tinbalekin. Arratsaldeko 19:30etatik 22:00etara *Rassklat* taldekoak musika jartzen ariko dira Apeadero tabernan.

Gaueko 22:00etan izango da ekitaldi nagusia Tilosetan. Gaurko kontzertuan lau talde ariko dira: *Borrokan*, *Obligaciones*, *Leher* eta *Bosko el Tosko y su Puta Banda*.

Bihar bukaera

Musika Astearen astelehena

ezkero ari dira ekitaldiak egingen. Azken eguna bihar izango da eta bi ekitaldi daude antolatuta: eguerdiko 14:00etan bertso bazkaria da Arizmendin, eta arratsaldeko 18:00etan kontzertua Tilosetan: The Basque Country Pharaos, Bulma eta Balck Jiko. □

KIROLA				ASTEBURUKO PARTIDUAK					
FUTBOLA		Taldeak	Non	Noiz	PELOTA		Taldeak	Non	Noiz
Gorengoak	Touring-Hernani	Fanderia	Gaur	17:00	Gipuzkoako Txapelketa				
1. Errejon	Hernani-Euskalduna	Zubipe	Bihar	17:00	Afizionatu	Alvarez-Girizia	Kiroldegia	Gaur	16:00
Gazt. Nazi.	Hernani-Danok Bat	Zubipe	Bihar	11:30	Pala Motza	Ubarretxena-Galarza/Kuku	Kiroldegia	Gaur	16:00
Gazt. Ohor.	Hondarribia-Hernani	Ondartza	Gaur	17:00	Jubenilak	Arrieta / Ikaskirola	Balda	Gaur	11:00
Kad. Ohore.	Sport. Herrera-Hernani	Herrera	Bihar	11:30	Kadeteak	Artola-Arrieta / Zarautz	Zarautz	Gaur	09:30
Kadete 2.	Hernani-Mundarro	Zubipe	Gaur	09:30	Kadeteak	Ojuel-Apaolaza / Ikaskirola	Kiroldegia	Gaur	16:00
Haur. Ohor.	Hernani-Aloña Mendi	Zubipe	Gaur	11:15	Kadeteak	Zabala-Gorrotategi/Azkoitia	Kiroldegia	Gaur	16:00
WATERPOLOA				ERRUGBIA					
Euskal Liga	Hernani-Larraina	Kiroldegia	Gaur	12:00	1. Liga Naz.	Hernani-Caja Cantabria	Landare	Gaur	12:30
Gipuzko. L	Hernani A-Easo	Kiroldegia	Gaur	13:00	Euskal Liga	Abanto-Hernani	Abanto	Gaur	12:00
Gipuzko. L	Hernani B-Tximistari	Kiroldegia	Bihar	13:00					

Kardaberaz 48ko bizilagunak pozik, etxe inguruko kiratsa kenduta

KARDABERAZ 48 etxebizitzan, oso usai txarra somatu dute egun batzuetan. Ur zikina eramateko tuberiaren batzuk katiatuta gelditu dira eta hortik sortu da usaia. Kronikara bidalitako

prentsa ohar batean eskerrak eman dizkiete bizilagunek Udal langileei eta aparejadoreari “abisua pasa eta laister bilatu baitzuten arazoa eta baita azkar eta ondo konpondu ere”. □



Iker Valleren eta Izotz Mendibururen arte lan bana.

Iker Vallek Baionan jarriak dauzka arte-lanak Izotz Mendibururekin

IKER Valle Hernanin bizi den andoaindarrak ispiluekin egingako lanak jarri ditu Baionan, *44 quai des corsaires* helbidean. Kristalei produktu berezi bat eman eta oxidatzea lortu du, marroixka kolorea hartu arte. Horrela hotz-bero kontrasteak bilatu omen ditu.

Vallek koadroa bera eta ispi-luan ikusten den kanpoko espazioa konbinatzea bilatzen du.

Arte-lanak Izotz Mendiburu hondarribitarrak ere jarriak dauzka Baionan. Mendiburuk kristala eta egurra konbinatzen ditu, elementu hotz eta beroak alegia. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 336077
- ▶ Gauez: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 336077

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai, Kardaberaz kalean. Pana parkerako bistak. 2 gela, sala, sukaldia, 2 komun eta aparkatzeko plaza erreserbatua. ☎ 646 47 02 58

Pertsona bat behar dugu tabernako sukaldian lan egiteko. Interesatuak deitu asteleheneetik aurrera: ☎ 943 55 67 06

Klase partikularrak emango nituzke: elektrizitatea, neumatika, hidraulika, elektronika (digitala eta analogikoa)... ☎ 646 83 27 52




Igande eta jai egunetan dantzaldia, 19:30etatik aurrera.

- Gaur larunbata: DJ Talo eta Laiotz
- Bihar igandea: Akelarre

OIALUME BILTOKIA - Oialume auzoa - 943 55 29 38

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia



Urbietan Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

HERNANI (Gipuzkoa)